

## IRABAZI-ITURRIAK

Bildumak berdintasuna bultzatzea eta ipui tradizionalen matxismo puntua deuseztatzea du xede nagusia, baina negozio guztiak bezala, diru-sarrerak izatea behar-beharrezkoa dela argi dago. Gure irabazi-iturri nagusia salmenta izango da. Badakigu hasieran jasoko dugun diru kantitatea inbertitu beharreko baino baxuagoa izango dela, baina ikastoletan lantzen hasten den heinean eta jendea ezagutzen hasten denean asko handituko dira.

Hasieran inbertituko dugun diru kantitatea 4500€koa izango da, hori taldekide bakoitzak 1500€ jarriz lortuko dugu. Gainera Eusko jaurlaritzak diru laguntza bat ere emango digu, oraindik zehaztu ez diguna. Hauek izango dira gure hasierako diru sarrerak.



© Can Stock Photo

Gure irabazi iturri bakarra ipuinen salmenta izango da. Ikastetxeetan adibidez, batetik, lanketak egiteko ikasleei liburuak erostearaztea edo beraiek erostea eskatuko diegu “tertulia dialogiko” antzeko bat egiteko eta, bestetik, bilduma salduko diego ikasgeleta egon daitezten. Horretaz gain, liburudendetan ere izango dira ipuinak. Ikastolei beherapen txiki bat egingo zaie, liburu bakoitza 13€tan salduko diegu eta bilduma osoa 85€tan. Dendetan berriz, liburu bakoitzak 15€ balioko ditu eta bilduma osoak 90€. Ikastetxeetatik jasoko dugun diruaren estimazioa, euskadiko ikastetxe bakoitzak bilduma bat erosiko balu (Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako 486 zentro daude euskadin gutxi gorabehera) 41.310€ lortuko genituzke. Horretaz aparte ikasleek bilduma bana erosten badute gutxi gora behera 3.400€ lortuko genituzke ikastetxe bakoitzeko mailako (kursoan 40 pertsona direla estimatuz  $\times 486$  zentro = 1.652.400). Ikastetxeek urte bakoitzean landuko duten ipuina aukeratuko dute.

Bestalde, liburutegietan (gutxi gora behera 304 liburutegi daudela kontutan hartuta Euskal Herrian) 27.360€ irabaziak estimatzen ditugu.

Dendetan hilabetean 14 liburutako salmenta aurreikusten dugu, hau da, 210€ irabaziak denda bakoitzeko (500 liburu denda daudela estimatuz 105.000€ko sarrerak). Hala ere, hainbeste denden menpe gaudenez, hilabeteko liburu-dendetako salmenten diru sarrerak kalkulatzeko zaila da, salmentak oso aldakorak izan daitezkelako herri bakoitzean bildumak duen arrakastaren arabera.

Elkar argitaletxearekin lanean gabiltzala kontuan hartuta, liburu bakoitzaren prezioaren %12 soilik jasoko dugu. Argitaletxeak zuzenean gainerako kostuak antolatzen eta ordaintzen dituelako (ISBN-a eskuratzea, distribuitzea etab.) eta hori delako guri dagokigun portzentaia. Beraz:

Ikastetxeetan: 4.957'2€

Liburutegietan: 3283'2 €

Ikasleekin: 198.288€ urt

Liburudendetan: 7.500€ hilabetean eta 90000€

Beraz liburutegiek eta ikastetxeek bilduma behin bakarrik erosiko dutenez, 8.240'4€ irabaziko ditugu, diru hori erreserba modura utziko dugu. Bestalde, liburudendetan eta ikasleekin urteroko irabaziak izango ditugunez, urtean (aurretik aipatutako irabaziak kontutan hartu gabe, erreserba direlako) 288.288€ ko irabaziak izango ditugu, eta kostuak kenduta **222.010€** ko irabazi garbiak.

